

## Bidebieta

# «Ez dut inspirazioan batere sinesten»

Mila Beldarrain Bidebietako Institutuko irakaslea da. Idaztea gogoko du eta bosgarren liburua plazaratu berri du, "Enigma" izenburukoa. Berarekin mintzatu gara, eleberraren nondik norakoak jakiteko.

Aitor Urkizu Azuabarrena

Zure azken eleberririk "Enigma" du izenburu. Zer esan nahi du?

"Enigma" Bigarren Mundu Gerran alemaniarrek mezuak deskodetzeko erabiltako makina izan zen. Frantziako liburutegi batean eskatutako liburu bati esker makinaren berri izan nuen. Liburu hartan, makina ezagututako pertsonaia batek "Enigma"-ren nondik norakoak azaltzen zituen. Hortaz, eleberrian makinari buruz kontatzen dudana guztia benetakoa da.

Azaldu iezaguzu labur-labur zer istorio kontatzen duen eleberririk.

Aipatu bezala, istorioa Bigarren Mundu Gerran girotuta dago, gutxi gorabehera 1940an. Ingeles espioiek, kontrabandistek, ijitoek eta antiheroi batzuek alemaniarren "Enigma" makina eskuratu behar dute, alemaniarrek Parisen sartzen ari diren unean bertan. Makina hau eraman behar dute, alemaniarrengandik ihesi, kontrabando bideetatik, eta mugalarrien laguntzaz.

Liburu bat idatzi baino lehen dokumentatu behar izaten da. Nora jo duzu informazio bila?

Urtebeteko dokumentazio lana egin dut, niretzat atsegina.

na izan dena. Kontrabando ibilbideei buruzko bi liburu erabili ditut. Bertan, oso ondo daude bilduta bide guztiak. Kontrabandoari buruz ezezagunak diren hamaika konturen berri izan dut. Liburu bat idatzi behar dudanean, urtebete pasatu ohi dut gaiari buruz dokumentatzen eta beste urtebete idazten.

Eleberririk historikoak idaztea ez da lan erraza, eta espioitzari buruzkoa bada, zeresanik ez. Nola hautatu zenuen gai hau?

Beti harritu nau espioiek liburu bat hartu eta bat-batean orrialde bateko lerro batetik mezu bat ateratzea. Nik ez nien hau nola egiten zuten; hortaz, kriptografia liburuak irakurtzen hasi nintzen. Bertan, "Enigma" izeneko makinaz hitz egiten zuten, eta arakatzeari ekin nion.

Horrelako liburu bat idatzi eta gero pasadizo bat baino gehiago izango duzu kontatzeko...

Auschwitz bisitatzen ari nintzela, esaterako, konturatu nintzen hilobietan ijitoen izenak ere bazudela. Beti iruditu zait Bigarren Mundu Gerraren historian ijitoak baztertu

### Parkea itxura hartzen

Eliza ondoko parkea zaharberritzeko lanek aurrera jarraitzen dute. Berrikuntza lanak uztaila bukaeran hasi ziren eta argazkian ikus daitezkeen eliza atzealdeko espaloia bukatuta dago jada. Parkea martxoa erdialdean zabaltzea espero da.




samar egon direla eta horregatik, ijito bat sartu dut eleberrian. Gainera, ijitoen hiztegi bat erabili dut, eta eleberrian esaldiren bat sartu dut ijitoen hizkuntzan.

Idaztea gustuko duzu, bai-na ogibidez irakasle zara. Nola uztartzen dituzu bi eginkizunak?

Nik ez dut inspirazioan batere sinesten. Beraz, arratsaldero, 16.00etatik 20.00ak arte, idatzti egiten dut, gogoz edo gogorik gabe. Beti, bezperan idatzitakoa errepasatu eta zuzentzen dut. Egunero orrialde bat idatziko bagenu, urte amaieran 365 orrialdeko eleberria izango genuke.



Argitalpen honen edizioan lankide:



kutxa  
gizarte ekintza